

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

461

2382/2023 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak eta esleitzen diren behin betiko destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Neurologiako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoriako / lanpostu funtzionaleko 2023ko martxoko zikloko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategoria/lanpostu funtzionaletarako, zeinetan Neurologiako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoria/lanpostu funtzionala sartzan baita (2021eko azaroaren 8ko EHAA, 221. zk.), eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera arautuko da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren martxoaren 23ko 342/2023 Ebazpenaren bidez (apirilaren 14ko EHAA, 71. zk.), zeina apirilaren 20ko 387/2023 Ebazpenak (maiatzaren 5eko EHAA, 84. zk.) eta abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenak (irailaren 7ko EHAA, 171. zk.) aldatu baitzuten, 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza argitaratu zen, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Neurologiako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoriako/lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren azaroaren 29ko 1589/2023 Ebazpenaren bidez, onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak argitaratu ziren eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A1 lanbide-taldeko Neurologiako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoriako/lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreak 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreaken prozeduraren oinarriak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinarekin 9.8 oinarrian aurreikusitakoaren arabera, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Neurologiako Fakultatibo Espezialista Medikoen lanpostu funtzionalaren/kategoriaren destinoak esleitzeko behin betiko zerrenda, urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren I. eranskinean jasotakoa kontuan hartuta. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea baztertutako langileen behin betiko zerrenda, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Neurologiako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko ziklorako. Zerrenda

horretan, baztertzeko arrazoiak adierazten dira, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez. Aipatutako destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren martxoaren 23ko 342/2023 Ebazpenean jasotakoak dira.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 oinarrian ezarritakoari jarraiki, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko urtarrilaren 29a, astelehena

II. ERANSKINA

342/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAKULTATIBO ESP. NEUROLOGIAKO MEDIKUA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. NEUROLOGIAKO MEDIKUA

NAN	Izen-abizenak	Baztertzeko arrazoia
***3027**	De Lorenzo Martinez de Ubago, Iñigo	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen
***4240**	Membrilla Lopez, Javier Amos	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen